



## **11. AKTA**

**TOKIKO GOBERNU BATZARRA**, 2007ko irailaren 14an izandakoa.

TOKIA: Pasaiako Hiria eta udaletxea.

DATA: Bi mila eta zazpiko irailaren 14a.

BERTARATU DIRA:

Ander Poza Olabide jauna.  
Ignacio Garmendia Aguirregabiria jauna..  
Obdulia Lorenzo de Dios andrea.  
Alvaro Ricon Rivera jauna.

Lehendakaria:

Maidier Ziganda Población alkatea.

Lehenengo deialdian, Maidier Ziganda Población alkate andrea buru dutela eta Joseba Belaustegi Cuesta udal idazkaria bertan dela, goian aipatutako zinegotziak bildu dira, Tokiko Gobernu Batzarraren bilkura egiteko. Edurne Baztarrika Bilbao zinegotziak bere ezin etorria justifikatu du.

Tokiko Gobernu Batzarra legez osatzeko behar hainbat partaide etorri dela egiaztatu ondoren, lehendakariak, 14:18an bilkurari hasiera eman dio, eta gai-zerrendako puntu hauek aztertzeari ekin diote:

### **1.- Aurreko batzarraldiko akta. 10.a. 07-08-16ko datakoa, irakurri eta onartzea.**

Bertaratuek goiburuan aipatutako akta aztertu dute, eta Tokiko Gobernu Batzarrak onartzea erabaki du, bertaratutako zinegotzi guztien adostasunez, eta akta hori dagokion Akta Liburuan jasotzea. Obdulia Lorenzo de Dios andreak ez du bozketan parte hartu aurreko Gobernu Batzordean parte hartu ez zuelako.

## **2.- Kontu eta fakturen zerrenda 9/07.**

Gobernu Batzordeak honako kontuak eta fakturak onartzea erabaki du:

Zk.: 9/07

Zenbatekoa: EHUN ETA BERROGEITA SEI MILA BERREHUN ETA LAUROGEITA SEI EURO ETA HEMEZORTZI XENTIMO (146.286,18).

## **3.- Pasaiako jubilatuen etxeentzako diru-laguntza.**

Tokiko Gobernu Batzarrak, bertako zinegotzi guztien adostasunez eta Gizarte Zerbitzuetako zinegotzi ordezkari Obdulia Lorenzo de Diosek 2007ko irailaren 3an egindako proposamena aztertu ondoren, honako hau

E R A B A K I D U

LEHENENGOA.-Ondoko zerrendan ageri diren jubilatuen etxeei 04.481.456.10.03 partidan (jubilatuen etxeen diru-laguntza) jasotzen diren diru-laguntzak ematea, aurkeztu dituzten jardueren lehenengo ordainketa gisa. Guztira 29.000 € banatuko dira.

- AITONEN ATERPEA	- Pasai Donibane	8.000€
- ZAHARREN BILTOKIA	- P. San Pedro	5.000€
- ZAHARREN BILTOKIA	- P. Antxo	8.000€
- HOGAR DEL JUBILADO	- Trintxerpe	8.000€

BIGARRENA.-Interesdunari erabaki hau jakinaraztea eta honen aurka jar daitezkeen errekurtsioen berri ematea.

## **4.- Ikastetxei 2007. urteko lehen sei hilekorako diru-laguntza ematea.**

Tokiko Gobernu Batzarrak, bertako zinegotzi guztien adostasunez eta Kultura eta Hezkuntzako zinegotzi ordezkari Ander Poza Olabidek 2007ko abuztuaren 31n egindako proposamena aztertu ondoren, honako hau

E R A B A K I D U

LEHENENGOA.-Ondorengo ikastetxeei 2007ko lehenengo sei hilekoari dagokion diru-laguntza ematea. Diru-laguntza hori 05.481.422.00.01 partidako A-864/07 baimendutik ordainduko da.

➤ Karmengo Ama H.I.....	38.863,06 €
➤ Karmengotarrak. Guraso Elkarte.....	3.168,00 €
➤ Pasaia-Lezo Lizeoa .....	19.230,35 €
<b>GUZTIRA</b>	<b>61.261,41 €</b>

BIGARRENA.-Interesdunari erabaki hau jakinaraztea eta honen aurka jar daitezkeen errekurtsoen berri ematea.

**5.- 2006-2007 ikasturtean euskara ikasi duten pasaitarrei diru-laguntza ematea.**

Tokiko Gobernu Batzarrak, bertako zinegotzi guztien adostasunez eta Euskara Batzordeko buru Ander Poza Olabidek 2007ko abuztuaren 9an egindako proposamena aztertu ondoren, honako hau

**E R A B A K I D U**

LEHENENGOA.-2006-2007 ikasturtean euskara ikasten aritu diren ondorengo pasaitarrei SEIEHUN ETA LAUROGEITA HIRU EURO ETA HOGEITA BOST XENTIMOKO (683,25€) diru-laguntza ematea. Diru-laguntza hori 10.481.455.10.01 “Euskararen aldeko jardueretarako diru-laguntzak” partidako A-828/07 baimendutik ordainduko da.

**EUSKARA IKASTEN ARI DIREN PASAITARRENTZAKO DIRU-LAGUNTZAK**

**2006/2007 IKASTURTEA -07/1**

IKASLEA	IKASTARO MOTA	LANGABETUA EDO IKASLEA	%	DIRULAGUNTZA
Elustondo Cazenave, Pedro	Urtarrila-ekaina	EZ	25	64,25 €
Galdos Urriolabeitia, Luis	Urria-ekaina	EZ	25	92,25 €
Garcia Gonzalez, Ainara	Urria-ekaina	EZ	25	135,00 €
Sanchez Sanchiz, Amaia	Urria-ekaina	EZ	25	94,75 €

Gomez Sanchez, Alvaro	Urria-ekaina	EZ	25	99,00 €
Lopez Turquety, Maria José	Urria-ekaina	BAI	50	99,00 €
Fraile Lafuente, Idoia	Urria-ekaina	BAI	50	99,00 €
<b>GUZTIRA</b>				<b>683,25 €</b>

BIGARRENA.-Interesdunari erabaki hau jakinaraztea eta honen aurka jar daitezkeen errekurtsoen berri ematea.

**6.- Bordalabordako urbanizazio-proiektuko obra osagarrien 7. ziurtagiria.**

Tokiko Gobernu Batzarrak, bertako zinegotzi guztien adostasunez ondorengo ziurtagiria onartzea erabaki du:

Zk.: 7

Obra: "Bordalabordako urbanizazio-proiektuko obra osagarriak".

ARKAITZA enpresa kontratistaren alde.

Obra-zuzendaria: MIKEL OTEIZA

Zenbatekoa: EHUN ETA HIRUROGEITA HEMERETZI MILA EHUN ETA HOGEITA LAU EURO ETA HIRU XENTIMO (179.124,03€)

Indarrean dauden udal-aurrekontuko D-471/06 (135.465,46 €) eta D-939/06 (43.658,57 €) xedatuetatik ordainduko da.

**7.- Bordalabordako urbanizazio-proiektuko obra osagarrien 8. ziurtagiria.**

Tokiko Gobernu Batzarrak, bertako zinegotzi guztien adostasunez ondorengo ziurtagiria onartzea erabaki du:

Zk.: 8

Obra: "Bordalabordako urbanizazio-proiektuko obra osagarriak".



ARKAITZA enpresa kontratistaren alde.

Obra-zuzendaria: MIKEL OTEIZA

Zenbatekoa: HAMASEI MILA HIRUREHUN ETA BERROGEITA BAT EURO ETA BERROGEITA HIRU XENTIMO (16.341,43€).

Indarrean dagoen udal-aurrekontuko D-939/06 xedatutik ordainduko da.

### **8.-“Pasai San Pedroko ikastetxeko fatxada berritzeko” obraren 3. ziurtagiria**

Tokiko Gobernu Batzarrak, bertako zinegotzi guztien adostasunez ondorengo ziurtagiria onartzea erabaki du:

Zk.: 3

Obra: "San Pedroko ikastetxeko fatxada berritzea".

UTE RESO-ARIAN enpresa kontratistaren alde.

Obra-zuzendaria: ROMÁN EGAÑA

Zenbatekoa: BERROGEI MILA EHUN ETA HIRUROGEITA ZORTZI EURO ETA BERROGEITA SEI XENTIMO (40.178,46 €).

Indarrean dagoen udal-aurrekontuko D-1706/06 xedatutik ordainduko da.

### **9.-Araneder 2.06.01 (S1) Egikaritza Unitatearen birpartzelazioa.**

Tokiko Gobernu Batzarrak, bertako zinegotzi guztien adostasunez eta Hirigintzako teknikari Aingeru Ezkerra Anduezak 2007ko uztailaren 11n egindako proposamena aztertu ondoren, honako hau

E R A B A K I D U

LEHENEA.-Araneder 2.06.01 1. azpiareako Egikaritze Unitatean birpartzelazioa beharrezkoa ez dela onartzea, EAEko Lurzorua eta Hirigintzaren Legeko 135. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

BIGARRENA.-Hauek dira birpartzelazioaren ordezkotako akordio honen ondorioz sortzen diren partzelak:

1. partzela: 2.000 m<sup>2</sup>koa, Araneder 2.06.01 Hiri Eremuan sartzen dena. Bide publikoak, gunee berde eta gunee libreak dira. Kanpoko mugak goian aipatutako salerosketa-eskrituren arabera, ondorengoak izango lirateke: iparraldean, Bidasoa Goiako Sektorea; hegoaldean, eskrituretan 3. zenbakia duen finka; ekialdean, ur-biltegia dagoen udal lursaila; mendebaldean, Martin Muno baserriari dagokion lursaila. Barneko mugak ondoren deskribatzen den finkarenak dira.

2. partzela: Eraikuntza Irekiko Bizitegi-Partzela, 480 m<sup>2</sup> koa, 12 m luz eta 40 m zabal duen laukizuzena, gaur egun dagoen bidearen parean. Alde guztietatik aurreko 1. lur-zatiarekin muga egiten du; hegoaldean, Bidasoa kalea dago.

**HIRUGARRENA.**-Ez da bidezkoa Hirigintza aprobetxamenduaren % 10 eskatzea; izan ere, ez da beharrezkoa, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak, ordainetan, eraikitako lokalak laga egingo baititu.

**LAUGARRENA.**-Hiritartze-betebeharrak betetzat jotzea.

**BOSGARRENA.**-Agiri hau jabetzaren erregistroan inskribatzea, ondoren partzelaren lagapena egin ahal izateko.

- Gai-zerrendatik kanpo, eta bertaratu diren zinegotziek aho batez bertan sartzea berretsi ondoren, ondorengo erabakiak hartu dituzte:

**10.-“Pasai San Pedroko Torreatze eremuaren berrurbanizazioa eta birmoldaketa”ren 16. ziurtagiria.**

Tokiko Gobernu Batzarrak, bertako zinegotzi guztien adostasunez ondorengo ziurtagiria onartzea erabaki du:

Zk.: 16

Obra: "Pasai San Pedroko Torreatze eremuaren berrurbanizazioa eta birmoldaketa".

TRABAJOS ESPECIALES ZUT SA. enpresa kontratistaren alde.

Obra-zuzendaria: ENDARA ING-ASOCIADOS SL.

Zenbatekoa: HAMAIKA MILA HIRUREHUN ETA HIRU EURO ETA BERROGEITA BOST XENTIMO (11.303,45€).



Indarrean dagoen udal-aurrekontuko D-1251/06 xedatutik ordainduko da.

**11.-“Pasai San Pedroko Torreatze eremuaren berrurbanizazioa eta birmoldaketa”ren 17. ziurtagiria.**

Tokiko Gobernu Batzarrak, bertako zinegotzi guztien adostasunez ondorengo ziurtagiria onartzea erabaki du:

Zk.: 17

Obra: "Pasai San Pedroko Torreatze eremuaren berrurbanizazioa eta birmoldaketa".

TRABAJOS ESPECIALES ZUT SA. enpresa kontratistaren alde.

Obra-zuzendaria: ENDARA ING-ASOCIADOS SL.

Zenbatekoa: HAMAZAZPI MILA SEIEHUN ETA HOGEITA HEMEZORTZI EURO ETA HOGEITA HIRU XENTIMO (17.638,23€).

Indarrean dagoen udal-aurrekontuko D-1251/06 xedatutik ordainduko da.

**12.-“Pasai San Pedroko Torreatze eremuaren berrurbanizazioa eta birmoldaketa”ren 18. ziurtagiria.**

Tokiko Gobernu Batzarrak, bertako zinegotzi guztien adostasunez ondorengo ziurtagiria onartzea erabaki du:

Zk.: 18

Obra: "Pasai San Pedroko Torreatze eremuaren berrurbanizazioa eta birmoldaketa".

TRABAJOS ESPECIALES ZUT SA. enpresa kontratistaren alde.

Obra-zuzendaria: ENDARA ING-ASOCIADOS SL.

Zenbatekoa: HEMERETZI MILA BEDERATZIEHUN ETA LAUROGEITA ZORTZI EURO ETA BERROGEI XENTIMO.

Indarrean dagoen udal-aurrekontuko D-1251/06 xedatutik ordainduko da.

Eta aztertzeko beste gairik ezean, 14:40an amaitu da bilkura. Bertan eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkariak, akta hau egiten dut, alkatearen oniritziarekin.